

## **BALOREZKO PROPOSAMENA**

Gure produktua bakarrik berotzen den katilua da. Katiluek diseinu aukera zabala (tamaina eta kolore ezberdinetako katiluak) dute eta edozein tokitan erabili daitezke.

Katilua baliagarria izan daiteke egoera ezberdinetan. Adibidez, edaria berotzeko baliabiderik ez duzunean edota presaka zabiltzanean eta edaria berotzeko gailuak erabiltzeko denbora ez duzunean.

### **Funtzionamendua:**

Gure katilua bobina batekin berotuko da eta hori pizteko, bateria bat eramango du. Orduan, botoia sakatzean zirkuitu elektrikoa martxan jarriko da eta bobina berotuko da. Bero horrek, katiluaren behealdea berotuko du likidoa berotuz.